



Leire Lopez, Ibon Egaña, Iratxe Retolaza eta Iban Zaldia joan den asteazkenean Donostian.

Kritika gabe esaidazue nola irtengo naizen plazara

KONTZERTU BATEN itxura dauka Donostiako Kaxilda liburu dendak otsailaren 4ko arratsaldean elkartu den jende kopuruarengatik. Munduan egiteko dauden gauza guztien artean eta, hotzaren beldur, bertan behera utz daitezkeen plan guztiak kontuan izanda, ez da meritu makala. Ibon Egaña Etxeberriaren *Izan gabe denaz* saiakera argitaratu berriak du meritua. Haren aurkezpena baliatuz antolatuta dute mahai-ingurua: baterian Leire Lopez Ziluaga, sartu eta atzeko lerroetan lekuren bat aurkitu dugunerako literatur kritikaren funtzioaz hizketan jarriak ditu Iban Zaldia (sintetizadorea), Iratxe Retolaza (gitarra) eta Egaña bera (ahotsa).

Zalduak “aberriaren deia” aipatzen du, alegia, “euskaraz literatura eraikitzeko” egiten dela kritika. Eta zentzu horretan, balio beharko lukeela irakurri behar litzatekeen liburua seinatzeko bezainbeste, arreta handia jaso duen lana zalantzan jartzeko. Retolazak punteo batekin erantzuten dio, berak ez duela kritika ulertzen irakurri behar diren edo ez diren liburuen katalogo bezala, galderak sortuko dituen diskurtso gisa baizik. Eta orduan entzuten dugu Egaña *frontman*-aren ahotsa lehenbizikoz, esanez liburuan landu duen alorrari dagokionez behintzat –hedabideetan argitaratzen den kritika–, obren balorazioa egitea badela prentsako iruzkingilearen zereginetako bat.

Klasiko batzuk jo ditu laukoteak, besteak beste, euskarazko kritikagintzak izan duen jarrera pendularren gaia. Nola pasa den formari bakarrik –edo nagusiki– garrantzia ematetik gaur egungo kritika soziologikoagora. Eta erdibidearen premian bat egin dute denek, nahiz eta kanta bukatu denean ez den oso argi geratu non artikulatu litezkeen liburu baten alder-

di estetiko eta soziala –imajinatzen dugu, aldiro kritikariak bere buruarekin eta bizi duen testuinguruarekin negoziatzen duen zerbait dela–.

Azken diskoko pieza bat ere atera da mahai gainera, Egañak aipatu baitu kritikek baino oihartzun handiagoa dutela azkenaldian liburuei buruz Twitterren esaten direnek. Ez hori bakarrik, gehitzen du Zalduak mahaiaren izkinatik: badira txioka iragartzen diren liburu kritikak ere, gero inoiz iristen ez direnak.

Beraz: legitimitate arazoak ote ditu ofizio ere deituzerik ez dagoen langintza honek? Zerk ematen dio kritikariari zilegitasuna? Lopezek abilki eraman du taldea azken konpasetara: Retolazaren ustez idazle jakin batzuekin harremana izateak, “koadrillak” –literaturaren inguruan mugitzen den talde gisa ulertuta– edo komunitate jakin batek –mugimendu sozial edo politikoei, barbarako– laguntzen dute posizio bat lortzen. Kritika negatiboek ere bai, gehitzen du Egañak, “norbaitekin” sartzen baldin bazara behintzat.

Bis baterako abiapuntua izan da azken kontu hori: posible ote diren liburuen kritika negatiboak euskaraz. Ba, segun eta non, segun eta nori, denak ados horretan. Euskal literatura existituko da bere buruari auto-kritika egiteko gai denean. Baina, urrun gaude hori lortzeko klimatik. Publikatzen diren kritika gehienak baikorrak edo oso baikorrak direla aipatzen du Egañak liburuan. Unibertsoan parekorik ez duen literatura daukagu ala “Mozal legea” baino lehenagoko zentsurak ezarri dizkiogu gure buruari, auskalo zeren mesedetan? ■

Gorka Bereziartua Mitxelena